



13/05/04ko INGURUMEN-FOROAREN 06 AKTA

TOKIA: LEGAZPIKO UDALETXEKO UDALBATZA ARETOA

EGUNA: 04/05/13

ORDUA: 18:00 – 19:10

BILDU DIRA:

Felix Dorronsoró (LSB-USO)

FPL-GKN: Javier Iraeta

IRATZARRI: Plaxi Zabaleta

M^a Jesús Alustiza

Amor Martínez

BUZTINTEGI: Victoriano Arrazola

Koldobike Olabide (Mirandaola)

Antton Reyes Prieto (Legazpiko bizilaguna)

Nerea Tauschke (Legazpiko bizilaguna)

Carlos Villacorta (Cie Automotive)

GALEMYS: Izaskun Orbezo

Margi Iturriza

Juan Ramon Larrañaga (alkatea)

Bixente Garmendia (Ingurumeneko zinegotzia)

Maribel Ugarte (zinegotzial)

Iñaki Erauskin (Sasieta Mankomunitatea)

José Ignacio Gil (Ur Kontsortzioa)

Josean Auzmendi (CEIDA)

Alonso Francés (aparejadorea)

Inma Emparanza (UGGASA)

Josune Macaya (UGGASA)

Arkaitz San Jose Martínez (Ingurune)

Tere Madinabeitia (Diario Vasco)

Rubén García (udaletxeko praktikaria)

IKASTETXEAK

DOMINGO AGIRRE

Irakasleak	Ikasleak	Gurasoak
Bakartxo Martinikorena	Nerea Maiztegi	Eva Aztiria
Elisabet Galarraga	Iñaki Ormazabal	
Lourdes Ortiz	Leire Fernandez	
Nieves Guillén	Maidier Pagola	
M ^a Carmen Mendizabal	Ane Encinaç	
	Jone Valdevielso	
	Maidier Agirre	
	Judith Velasco	



OLAZABAL

Irakasleak	Ikasleak	Gurasoak
Koro Zabaleta Antxine Soraluze	Letizia Perez de Arenaza Olatz Orozko Cristina Campos Ane Lizarralde Marixabel Valhondo	Montse Vallejo

HAZTEGI

Irakasleak	Ikasleak	Gurasoak
Rosa Mari Elorza Loren Andueza Maite Odriozola Garbiñe Basabe Eva Lasa	Asier Gabiria Miguel Gil Igor Uria Garazi Plazaola	

EGUNEKO AZTERGAIK

- 2004ko EKINTZA-PLANA
- SENTSIBILIZAZIO-JARDUERAK
Aste Berdea 2004
Erreka Eguna
Autorik gabeko eguna
Argazki lehiaketa
Bestelakoak
- ESKOLA-AGENDA 21
- GALDERAK ETA ERANTZUNAK



Foroari hasiera emateko Juan Ramonek Legazpiko hiru ikastetxetako ordezkariak aurkeztu ditu eta ongi etorria eman die Herritarren Partaidetzako Forora. Eskerrak ematen die partaide guztiei bilera hauetan parte hartzeagatik eta ikastetxeetako ikasleen parte-hartzea garrantzitsua dela esan du, batik bat, HONDAKINEN gaia aztertzeko. Ikasleek ikasturtean zehar landu dute gai hori, proposamenak eta konpromisoak adostuz eta gaur azalduko dute hori guztia Udalari eta parte-hartzaile guztiei.

Jarraian alkateak bileran aztertuko diren gaiak azaldu ditu eta ikasleei gaurko bileran zertaz hitz egingo den azaldu die. Aurreko Foroetan jasota geratu den bezalaxe, herritarren kezka nagusienetako bat Legazpiko enpresa garrantzitsuak atmosferara botatzen dituzten keak dira.

- GSB: iaz ke-araztegi berria jarri zuen modu horretan atmosferara jaurtikitako kutsatzaileak gutxituz.
- BERECIARTU FUNDIZIOAK: lanean ari da bere ke-araztegia jartzeko eta modu horretan bere ke-isurpena gutxitzeko.

ASTE BERDEA:

Maiatzaren 31tik ekainaren 6ra **Aste Berdea** ospatuko da. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Sailak bultzaturiko urteroko topaketaren foroa da. Aste Berdearen helburuak bat datoz Europako Batasunaren helburuekin eta Europan osoan ospatzen diren "Green Days" ("Egun berdeak") izeneko egunen zati bat osatzen du.

Europako Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzak egin duten deialdiari erantzunez, Legazpiko udalerriak bi ekintza antolatu ditu. Lehenengoa ekainaren 3an, osteguna, izango da. Hitzaldi eta mahai-ingurua antolatu da egun denon ahotan dagoen gai baten inguruan: erraustegiak. Horretarako, honako hizlariak izango dira bertan: Xabier Garmendia, Gipuzkoako Hondakinen Plana azalduko duena eta Javier Abalde, Ekologistak Martxan taldeko kidea. Arratsaldeko 19:00etan izango da Legazpiko Kultur Etxean.



ERREKA EGUNA

Bigarren ekintza hasiera batean datorren larunbatean, ekainak 5ean, ospatzea pentsatu zen baina egun horretarako dagoeneko beste ekintzak antolatuta daudenez, datorren irailaren 25era atzeratzea erabaki da. Egun horretan Legazpiko udalerrria zeharkatzen duen Urola ibaia garbituko da eta horretarako ikastetxeen laguntza jasoko da. Helburua ez da erreka garbitzea bakarrik; era berean herritarra uraren garrantziaz eta errekek garbi mantentzeaz kontzientziatu nahi da..

AUTORIK GABEKO MUNDUKO EGUNA

Irailaren 22a, asteazkena, autorik gabeko munduko eguna izango da. Egun horretarako Legazpiko Udalak ekintza desberdinak antolatuko ditu, hala nola, iaz bizikletarekin egin zen ibilaldia,....

ARGAZKI LEHIAKETA, ZABOR-POLTSAK ...

Bestalde, eta Uggasarekin koordinatuta, antolatu den zabalpen eta sentsibilizazio kanpainaren barruan, eskualdeko lau udalek ondoko hau egin dute:

- Zabor-poltsak prestatu dira Tokiko Agenda 21 eta iraunkortasunari buruzko lemarekin eta eskualdean ospatzen diren lau erromeriatan banatzeko.
- Eskualde mailan argazki lehiaketa antolatu da iraunkortasunaren gaia ardatz hartuz. Lehiaketatik aukeratutako 12 argazki hoberenekin egutegia egingo da eta eskualdeko etxeetan banatuko da.

EKOBAROMETRO

IHOBEk kontratatu duen SIADECO enpresak, Legazpiko udalerrriaren diagnostikoa egin du, 15 urtetik gorako herritarren artean inkesta bat eginuz. Udaletxeak azken txostena jaso du eta komunikabideen aurrean lhobe enpresako teknikariek prentsaurreko bat emango dute eta diagnostikoa zergatik eta nola egin den adieraziko dute. Aurkezpen hori datorren ekainaren 4an, ostiralarekin, izango da goizeko 11:00etan udaletxeko Udalbatza Aretoan.



Ikastetxeetako ordezkariet hitza eman aurretik, Juan Ramonek aurreko foroan aztertu zen beste gai bat edukiontzi horietan eta urdinetan jarritako eskuilena izan zela ekarri du gogora. Felix Dorronsoro jaunak metodo hori ez dela higienikoa esan du eta azkenean, herritarrek ez dute edukiontzi horiek erabiliko bertan hondakinak ixteko.

Iñaki Erauskin jaunak hasieran eman zieten alternatiba hori izan zela erantzun du eta ezer baino lehen, haiek jartzea erabaki zutela esan du. Dena dela, aste honetan Madrilan egon direla eta eskaintzen dizkieten aukera berriak ikusi dituztela esan du eta dagoeneko erabakita dago sistema berria. Edukiontzi horiak gaintapa bat izango du eta edukiontzi urdinak bisera bat (gutunontzien antzekoa). Aldaketa horiek uda iritsi baino lehen egitea espero dute.

ESKOLA-AGENDA 21

Ikastetxeetako ikasle ordezkariet HONDAKINEN inguruan eskola barruko foroetan landu dituzten proposamen eta konpromisoak adierazi dituzte. Lan horren helburua beraien, udaletxearen eta Sasieta Mankomunitatearen artean konpromisoak lortzea da.

Ondoren, Juan Ramon Larrañaga alkateari eta Sasieta Mankomunitateko Iñaki Erauskin jaunari eskoletan landu dituzten dokumentua eman diete. Agiri horretan landu dituzten gaiak eta herritarren artean egin den inkestaren ondoren jaso diren ekarpenak ageri dira; modu berean, guztion artean hartu behar diren konpromiso-proposamenak jaso dira. Segidan, hiru ikastetxetako 6 eta 16 urte bitarteko 709 ikasleen 6 ordezkariet jaso diren ondorioak eta proposamenak irakurri dituzte.

Laburtuz, hauek izango lirateke proposamen nagusiak:

Herritar guztiet zuzenduta:

- Erosketak egitean, erosketa-orga eta oihalezko poltsak erabiltzea; edo, bestela, plastikozkoa behin eta berriro erabiltzea.
- Plastikoaren ordezt, papera eta kartoia erabiltzea.
- Ahal den guztia birziklatzea.
- Gauzak aprobetxatzea.



- Zaborra zakarrontzietara botatzea.
- Behar dena bakarrik erostea.
- Bildukin gutxiago erabiltzea.

Udalari zuzenduta:

- Edukiontzi gehiago jartzea, batik bat, auzo hauetan: Plazaola, Mantxola, Arantzazu, San Martin eta Industrialdean.
- Birziklatzeko edukiontziak eta lurpeko edukiontziak jartzea, ikastetxeen inguruetan.
- Panelak jartzea herritarrek kaleak garbi mantentzen dituzten bultzatuz.
- Edukiontziak sarriago garbitzea eta hustea.
- Erreka garbitzea eta ordenantza bat onartzea zikindu ez dadin.
- Zakarrontzi gehiago jartzea, batik bat, toki hauetan: udaletxeko plazan, Plazaola 18, 19 eta 20an, Latxartegin, Mirandaolan, Urtatzen, San Inazion, San Josen, Laubiden, Brinkolan, Arantzazun, Mantxolan eta San Martinen.
- Etxeetan propaganda banatzea garbiketaren garrantzia azpimarratuz.
- Olio birziklatzea.
- Herritarren artean erreka garbitzeko egun bereziak antolatzea.

Beraiek hartuko dituzten konpromisoak:

- Etxeko eta ikastetxeetako hondakinak bereiziko dituzte.
- Kalean ez dute zaborra lurrera botako.
- Erosketak egitean norberak bere poltsa eramango du.
- Aiton-amonon ohiturak berreskuratuko dituzte eta birziklatzea bultzatuko dute.

Juan Ramonek udaletxeari zuzendutako galderaren bat erantzun du eta galdera guztiei datorren ikasturte hasierarako erantzungo dituela hitz eman du.

- Kaleen garbiketari dagokionez, udaletxeak orain dela 7 urte enpresa bat kontratatu zuen lan horretara eta aurrean berriro kaleratu da zerbitzu hori kontratatzeko lehiaketa. Dauden beharrak ikusita, kaleak astean sei aldiz garbituko direla erabaki da, hau da, kaleak egunero garbituko dira larunbatetan izan ezik.
- Erreka garbitzeko dagokionez, hasiera esan den bezala, irailean ERREKA EGUNA ospatuko dugu eta erreka garbituko da.



- Dendariekin bilerak egiten ari dira bildukin gutxiago erabil ditzaten eta erosketekin emango den poltsa-kopurua gutxitu dadin; gaia korapilotsua da baina poliki-poliki dendariak konpromisoak hartzen ari dira.
- Udaletxeak ezin ditu lurpeko edukiontzia jarri, horren kostua oso handia delako. Gaur egun, AIZTONAGA izeneko urbanizazio berria lurpeko edukiontzi horiek jarriko dira.

Segidan, Juan Ramonek hitza eman dio Iñaki Erauskin jaunari aurkeztu diren gaiak zehatzago azal ditzan. Iñaki Erauskin jaunak eskertu egin du ikasleek egin duten lana eta hainbat puntu argitu ditu; jarraian, dokumentua hobeto aztertuko duela eta ahal bezain pronto erantzun bat emango duela hitz eman du.

- Arazo larriena hondakin asko sortzen dugula da eta hori da gehien landu behar dugun gaia.
- Bere ustez eta inon jaso ez dela ikusirik, etxeetako gutunontzietan banatzen den propagandarekin hondakin asko sortzen da.
- Hilean behin, azoka egunean etxean erabilitako olioak biltzen da. Hondakin horren biltzea garbia egitea oso zaila da eta horretarako aukerak oso urriak dira.
- Orain dela gutxi, arropa eta oihalak biltzeko edukiontzi zuriak ipini dira eta oso emaitza onak jasotzen ari dira.
- Edukiontzi gehiago jartzeko beharra aztertuko da eta behar izanez gero, jarriko dira. Gaur egun, 50-100 metroko edukiontzi bat dago baina herritarrek ez dute nahi euren etxe parean edukiontziak edukitzea.
- Legazpin gauero kartoiak jasotzen dira, batez ere dendariak uzten dituzten tamaina handiko kartoiak.
- Laster kanpaina bat egingo da Deskargako Garbigunearen berri emateko. Eskualdeko beste herriekin alderatuz gero, Legazpiko udalerrak Garbigunea gehien erabiltzen duen herria da, Garbigunetik urrunago egon arren. Une hauetan egunero, gutxi gorabehera, 20-30 pertsonak erabiltzen dute Garbigunea, 3.000 tona utziz; datu horiek positiboak dira.
- Batik bat Industrialdeetan jasotako egurra, Donostiara eramaten da eta birziklatu egiten da; egur horrekin txirbila egiten da eta aglomeratuetan erabiltzen da.



- Edukiontziaak hustu eta garbitzeko maiztasunari dagokionez, edukiontziaak egunero (astean 7 egunetan) husten direla esan du. Urtean bi egunetan bakarrik ez dira edukiontziaak husten: Gabon-egunean eta Urte-berri egunean. Edukiontziaak garbitzeari dagokionez, astean bitan garbitzen dira: egun batean “edukiontzia garbitzeko kamioia” pasatzen da eta bigarrean beste kamioi bat pasatzen da eta tutu malgua erabiliz urarekin garbitzen ditu edukiontziaak. Kalitatearekin konforme daude eta maizago egitearekin ezinezkoa dela esan du, horrek kostua asko igoko lukeelako.

Hondakinak jasotzeko kostuari dagokionez, sortzen den hondakin-kopuruaren arabera kobratzeko aukera aipatu da, modu horretan hondakin gutxiago sor dadin. Iñaki Erauskin jaunak kontrol hori eramateko sistemak badaudela esan du eta gaur egun Euskadin horrelako sistemak erabiltzen ez badira ere, etorkizunean erabiliko direla esan du.

Juan Ramonek bilerari amaiera eman aurretik eskerrak eman dizkie parte-hartzaile guztiei eta, batik bat, ikastetxeko ordezkariak, egin duten lana garrantzitsua izan delako. Udalak eta Sasieta Mankomunitateak jaso diren ekarpen guztiak erantzungo dituztela esan du baina beraiek ere konpromiso batzuk hartu dituztela gogoan izan dezatela eta konpromiso horiengatik erantzutea eskatuko zaiela esan die.